

SUAZ BLAI

(ERMUKO SEME MADARIKA TUAK)

Orain dela urte batzu Ermuko bost lagun musika-ren munduan hasi ziren. Menhir izeneko taldea sortu ondoren kalera irten ziren beraien musika aurkezte-ko asmoz. Lau urte pasa eta Menhir desagertu zen baina Joserra (bateria) eta Efrén (baxoa) jarraitu na-hian Gordexola eta Sodupeko bi mutilekin (Monti eta Ramon) elkartu ziren 'Suaz Blaitalde euskalduna sortzeko.

DROGET: Zein da Suaz Blaitaldearen historia?

1988an Suaz Blai sortu genuen. Hu-rrengo urtean gure lehen diska (Zer ger-tatzen da?) plazaratu genuen \$Hilargi Re-kords etxearen eskutik. Aurten Suaz Blai izenburua duen bigarren diska atera da. Orain hirugarrena prestatzen ari gara.

D: Kontzertuetan bakarrik jotzen duzue?

Batzutan bai, baina beste talde batzu-rekin jotzen dugu, adibidez: Zarama, Bal-di bada, Montana, Dinamita pa los pollos eta abar.

Kantak semeak bezalakoak dira. Ezin duzu kanta bat aukeratu. Bakoitzean zerbait dago.

D: Telebista agertu zarete, ezta?

Bai, gure ustez oso garrantzitsua izan zen Etb-ko Entre Amigos saioan atera-tzea, hala ere gustatzen zaiguna herrie-tan jotzea da.

D: Sodupen eta Gordexolan jo du-zue baina Ermuan ez, zergatik?

Ez dakigu, oso gustora joko genuke Er-muan.



D: Baina zuek mugitu zarete Er-muan jotzeko?

Bai, adibidez Udaletxera joan ginen \$Herriz Herri\$ kainpainaren barruan geundela esatera baina kasurik ez. Beste taldea ekarri zuten.

D: Badakizue zergatik?

Ez, ez da logikoa. Bi diska dituen talde batean Ermuko bi mutil daude, gainera telebistan agertzen dira eta Udalari ber-din zaio. Ez dugu pentsatu nahi Udalaren ustez rocka eta kultura zer ikusirik ez du-tela edo euskara gure hizkuntza ez de-nik. Dirudienaz Ermuko seme madarika-tuak gara.

D: Uste duzue ezagunak zaretela Er-muan?

Ez, jendeak beharbada irratian gure kantak entzun ditu baina ez daki ermu-koak garenik.

D: Zer espero duzue Ermuko jen-dearengandik?

Ba... Ermuan jotzen badugu jendea on-do pasatuko dela uste dugu.

D: Hitzegin ezazue zuen bigarren diskari buruz.

Zortzi kanta dira. Pan-Pot estudietan grabatuta dago. Teknikoa Iñaki Bilbao izan zen. Lan profesionala dela pentsa-tzen dugu baina hori jendeak esan behar du.

D: Aukeratu diskaren kanta bat.

Kantak semeak bezalakoak dira. Ezin duzu kanta bat aukeratu. Bakoitzean zer-bait dago.


D: Nolakoak dira hitzak?

Gure hitzak oso desberdinak dira. Na-hiz eta hitorio batzu asmatu, normalean gure bizitzaz hitzegiten dugu. Adibidez, zuk egun moteletan hitz tristeak idazten dituzu, baina zorionez beteta zaudenean hitz alaiak egiten dituzu.

D: Eta etorkizuna zer?

Datorren urtean New York-ko Madiso-

nen kontzertu bat emango dugu Lola Floresekin... ez, barkatu, txantxetan gau-de. Ba... datorren urtean gure hirugarren diska aterako da. Ez dakigu zer gertatu-ko den, beharbada ezer ez, ez zaigu im-porta, Suaz Blai talde apala da eta. Ez daukagu nahi handirik, nahi duguna jo-tzea eta musika eginez ondo pasatzea da, beno oso inportantea da ere jendea gurekin ondo pasatzea.



Datorren urtean New York-ko Madisonen kontzertu bat emango dugu Lola Floresekin.

D: Azken galdera: Zergatik euske-raz?

Eta zergatik ez? Arraroa alemanez abestea izango da.

D: Baina Ermuan...

Badakigu, kazetari askok esaten digu-te. Aspaldian Ermuan euskeraren egoera oso txarra izan da, baina hau aldatu be-har dugu denon artean, Euskara lagundu dezakegu.

SAN ANTONIO

Zure eguneroko ogia

Ospakizunetarako tartak, pastelak,

bonboiak, izozkiak...

